

EUSKARA ELKARREKIN IRUDIKATU:
ABIAN DA PARTE HARTZE PROZESUA, MANKOMUNITATEAREN
III. PLAN ESTRATEGIKOA OSATZEA HELBURU DUENA

- Mankomunitateak Bortziritan euskara biziberritzeko III. Plan Estrategikoa egingen du. Plan horren indarraldia 2026tik 2031ra bitartekoa izanen da.
- Plana osatzeko herritar eta eragileekin parte hartze prozesu bat egingen du, orain hasi eta apirilera bitartean. Herritar eta eragileek prozesu horretan iritzia emateko eta ekarpenak egiteko hainbat bide izanen dituzte: galdetegia betetzeko aukera izanen dute, apirilaren 5eko kontraste saioan parte hartu ahalko dute, baita zenbait elkarrizketatan ere.
- Horrez gain, Bortziriako udal eta mankomunitateetako arduradun politiko eta teknikoekin ere saio bat egingen da, martxoaren 14an, haiekin batera lantzeko hurrengo urteotako hizkuntza politikaren ildo nagusiak.
- Parte hartze prozesua Elhuyar Aholkularitzaren laguntzarekin egingen du mankomunitateak.
- Plana irailean aurkeztuko zaie herritar eta eragileei, eta orduan espero da onartzea, 2026tik aitzinera abian jartzeko.

Sarrera

Euskara elkarrekin irudikatu leloaren bidez islatuko du mankomunitateak orain hasi eta irailean bukatuko duen prozesua, Bortziritan euskara biziberritzeko III. Plan Estrategikoa bertako herritar eta eragileekin osatzea helburu duena. Bortziriako herritar eta eragileek, baita bertako erakundeetako arduradun politiko zein teknikoek, prozesu honetan parte hartzeko hainbat aukera izanen dituzte.

Mankomunitateak aitzinetik egin dituen bi plan estrategikoak osatzeko ere bide berari jarraitu dio eta parte hartze prozesu arrakastatsuak egin ditu. Lehenbizikoan, 2013koan, ehundik goiti herritar eta eragileek parte hartu zuten plana osatzeko egindako saio eta dinamiketan. Bigarrenean, 2020an, pandemia betean izanik ere, 60 lagunetik goiti izan ziren saio eta galdetegi bidez parte hartu zutenak.

Aitzineko bi prozesuetan bezala, aurten abian jarri den honetan ere Elhuyar Aholkularitzaren laguntza izanen du mankomunitateak. Enpresa horretako ordezkariak eta mankomunitatekoek talde eragile bat osatu dute, eta hori izanen da prozesua dinamizatzeaz, gidatzeaz eta ebaluatzeaz arduratuko dena.

Mankomunitateak dei egiten die Bortziriako herritar eta eragileei beren ideiak, iritziak eta ekarpenak eginez prozesuan parte har dezaten. Aitzineko aldietan batik bat herritar euskaltzaleek eta euskalgintzako eragileek parte hartu badute ere, oraingoan arreta berezia jarri nahi zaie bertzelako arlo eta giza talde hauen partaidetzari: kanpotik Bortziriara etorritako herritarrak, euskaraz ez dakiten edota ikasten ari diren herritarrak, arlo sozioekonomikoan ari diren eragileak, aisialdiko eragileak... Guziek izanen dute prozesuan parte hartzeko aukera.

Parte hartzeko bideak

Lehen urrats modura, mankomunitateak galdetegi bat zabalduko du, Bortziriako edozein herritarrek bete ahalko duena. Galdetegi horretan herritarrei eskatuko zaie euskararen egungo egoera hitz batean definitzeko eta, horrez gain, hurrengo urteetan eskualdean euskara biziberritzeko erronka edo ildo nagusiak zein izan behar diren zehazteko. Galdetegia otsail bukaeran zabalduko da eta martxoaren 7ra arte egonen da zabalik.

Ondoren Bortziriako arduradun politiko eta teknikoek txanda etorriko da. Martxoaren 14an haiekin saio bat egingen da, euskararen egungo egoeraren gaineko diagnostikoa aztertzeko eta osatzeko eta datozen urteetarako erronka nagusienak lantzeko.

Herritar eta eragileen txanda izanen da ondotik, haiekin kontraste saio bat egingen baita apirilaren 5ean, larunbat goizez. Hurrengo sei urteetarako helburuak, lan ildoak eta erronkak landuko dira haiekin ere.

Bertzalde, banakako elkarrizketak ere egingen dira, kontraste saiora etortzeko modurik izan ez eta planarentzat estrategikoak diren kolektibo eta eragileen iritziak jaso ahal izateko.

Iritziak biltzeko prozesu hori apirilaren erdi alderako akabatzea aurreikusten da.

Plan berriaren aurkezpena

Herritarrek parte hartzeko prozesuaren ondotik, mankomunitateko teknikarien esku geldituko da plana erredaktatzea. Zuzenketak eta ekarpenak jaso ondoren, Batzorde Erabakitzailearen esku geldituko da dokumentua onartzea.

Azkenik, irailean planaren aurkezpen publikoa eta irekia egingen du mankomunitateak, eta dei egingen die parte hartze prozesura bertaratutako herritar eta eragileei saio horretan parte har dezaten.

2026arekin batera planaren exekuzio fasea etorriko da. Horretarako, urtez urteko kudeaketa planak egingen dira, mankomunitatearen urteko aurrekontuarekin lotuak egonen direnak.